



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abuztuaren 19a

80 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, oporraldietan osasun-arloko langileak ordeztuko politikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Galdera, Irurtzongo Udalak saihesbide bat eraikitzeko eginiko proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2002ko ekainean egindako bilerak (15. or.).

—2002ko ekainean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

Legearen testu osotik aipatzen diren helburuak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez dago zertan idatz-zati bakoitzean haiek jarri, ez baitagozkio berez legeari, ekintza plan bati baizik.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa:

Bigarren artikulutik, "Aplikazio eremua", ondoko esaldia kentzea:

"2005. urteko abenduaren 31 arte izanen dute indarra."

Zioak: Gure ustez, legeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erabatekoa lortu arteinokoa izan behar du indarra, eta, jakina, ezin berma daiteke epe horretan hori lortuko denik.

3. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da artikulu berriaren testua:

"Ikerketa eta ekintza planak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren arrazoi, ezaugarri eta ondorioei buruzko azterlan eta ikerlanak egin eta bultzatuko ditu maila guztietan, bai eta hura desagerrarazteko aplikatzen diren neurrien eraginkortasunaren gaineko ebaluazioari buruzkoak ere. Lan horiek Parlamentura eta arlo honetan lan egiten duten erakunde eta elkarte guztiei igorriko zaizkie, gizartean eztabaida sustatzeko.

2. Nafarroako Gobernuak urte anitzeko ekintza plan integralak igorriko ditu, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna desagerrarazteko, Parlamentuak eztabaida eta onets ditzan. Plan horiek urtero gizarte-arlo guztietan gauzatuko diren jarduketa-lerroak jasoko dituzte, bai eta jarduketa horiek ezartzeko faseak, behar diren giza-eta diru-baliabideak eta plan bakoitza bete eta jarraitzeko sistema ere.

3. Urtero, plana bete eta lehenbiziko hiru hilabetean, Parlamentuari eta arlo honetan lan egiten duten erakunde eta elkartei, planaren betetzeari buruzko azterketa bat aurkeztuko zaie; azterketa horretan, aplikaturiko neurrien eraginkortasunari buruzko balorazio bat eta azterketa horren aurre-

an bidezko jotzen diren proposamenak ere jasoko dira.

4. Nafarroako Gobernuak Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren Behatokia sortuko du. Behatokiaren helburua informazio sistema bat eratzea izanen da, haren bitartez emakumeek gizonen aldean bizi duten egoera eta emakumeek arlo guztietan berdintasunez parte har dezaten sustatzeko xedez erakundeek abian jarritako politiken eragina ezagutzeko.

Zioak: Ezinbesteko jotzen dugu ikerketa lan zehatzak egitea jarduketa lerro zuzenak ezartzeko; lerro horiek, bestalde, aurrera eraman beharreko jarduketan plan zehatz eta berariazko batean jaso beharko dira, hain zuzen ere behar diren diru baliabideak izanen dituen, eraginkortasun handiena lortzeko.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikuluaren tituluaren ordez, "Helburuak eta neurriak sentsibilizazioaren arloan" tituluak ipiniko da.

Artikulu bereko lehen lerrokadan, "kontzientziazioaren" ordez "sentsibilizazioaren" idatziko da.

Lehen lerrokadako a) letran "...eta kontzientziazioa" kenduko da.

Zioak: Gure ustez, hobeki definitzen du artikuluen helburua.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Neurriei buruzko a) letran, bigarren lerroan, ondokoa gehituko da:

"eta Nafarroako gizarte osoan".

Zioak: Kontzientziazioaren arloko helburuei buruzko b) letrarekin bat etortzeko.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.d) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bazterkeria eragin dezake izan daiteke balizko beste baliabide batzuen aldean.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.f) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Lerrokadatik "pizgarri ekonomiko" kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Zinegotzigoak sor daitezten sustatzearen alde bagaude ere, ez gaude ados neurri hori nahitaez ekonomikoki hornitu behar izatearekin. Aukeren berdintasuna udalaren ekintza orotan bultzatu behar da.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.g) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuaren eskumen bat da.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.h) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"Urtero, Nafarroako aurrekontu orokorretan, behar adina diru aurreikusiko da foru lege hau betetzeko garatzen diren neurriak gauzatzeko."

Zioak: Testu hori zorrotzagoa eta praktikoagoa da. Garrantzitsuena legea betetzea da, eta horretarako behar diren baliabideak jarri beharko dira: horixe da bermatu behar dena. Gainera, batzuek beren erantzukizuna NEIren lepoan jar zezaketen, eta hori ez zaigu ez zuzena ez egokia iruditzen.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.i) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: f) letrari buruz azaldutakoarekin bat etortzeko.

11. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluko n) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Letra horren helburu dena azterlan orokorretan sartu beharko litzateke, kasua bada.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.n) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Gizonen eta emakumeen aukera berdintasunean eragiten duten alderdiei buruzko azterlanak eginen dira, gizartearen kontzientziaziorako erabakien eta jarduketan oinarri izan daitezten.”

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu foru lege proposamenaren helburuari begira, proposatzen den testua guztiz alde batekoa eta praktikotasun gutxi-koa delako.

4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**13. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4.a) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Elkartek sustatzeko kanpainei buruzkoa aurretik aipatua dago, eta ez gaude ados emakumeei kide izatea errazten dieten elkarteei pizgarri ekonomikoak ematearekin.

14. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

4. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Hona testu berria: “Gizonen eta emakumeen parte-hartze sozial berdina helburu gisa duten emakumeen elkarteak, edozein motatakoak, sustatzeko kanpainak eginen dira. Neurri honetan, oso kontuan hartuko dira emakumeen elkarte gutxi dauden Nafarroako aldeak.

Zioak: Emakumeen elkarteak bultzatzea.

15. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Neurriei buruzko a) letran, lehenbiziko lerrokadan “edozein motatakoak” dioenean, ondokoa gehituko da:

“(lehentasuna emanen zaie, betiere, helburuen artean gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzearena duten elkarteei)”.

Zioak: Interesgarria da emakumeen artean edozein motatako elkarteak sustatzea, baina gure ustez lehenetasuna eman behar zaie (gainerakoak alde batera utzi gabe) baliabide horiei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteak sustatzeko.

16. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

4. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. “pizgarrien” hitza kentzea proposatzen da. Hona testu berria: “...eginen da, kanpainen bitartez”.

Zioak: Ez zaigu egokia iruditzen alderdi politikoiei pizgarriak ematea hautagai-zerrendetan emakumeen presentzia areagotu dezaten.

17. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4.b) artikulua aldatzeko zuzenketa.

4. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. "pizgarrien" hitza kentzea proposatzen da. Hona testu berria: "...eginen da, kanpainen bitartez"

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

18. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

4. artikuluko c) letratik ondoko testua kentzea proposatzen da:

...eta pizgarri ekonomikoak emanen zaizkie hautagai zerrendetan emakumeen presentzia handitzen duten indar politikoei."

Zioak: Ez dugu uste zuzenbidez dagokiguna diruz sustatu behar denik. Sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egin behar dira, alderdi-tako organo erabakitzaileek batzuen eta besteen presentzia berdina izan dezaten, baina horretarako pizgarri ekonomikorik eman gabe.

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

4. artikuluko c) letra ordezteko zuzenketa.

Proposatutako testuaren ordezkari honako hau proposatzen da: "Sentsibilizazio kanpainen bitartez sustatuko da gizonen eta emakumeen presentzia berdina izan dezaten alderdi politikoetako organo erabakitzaileetan eta hauteskundeetara aurkezteko hautagai-zerrendetan.

Zioak: Emakumeak politikan aritu daitezen sustatzea.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4.c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa aldatu behar da: "Emakumeen eta gizonen presentzia alderdi politikoetako organo erabakitzaile eta betearazleetan berdintasunezkoa" dioen lekuan "Emakumeen presentzia alderdi politikoetako organo erabakitzaile eta betearazleetan berdintasunezkoa" esan behar du".

Halaber, "pizgarri ekonomikoak emanen zaizkie" kendu behar da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4.d) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa aldatu behar da: "batez ere gizonen zuzenduak" dioen lekuan, ondokoa esan behar du: "gizarte osoari zuzenduak".

Zioak: Berdintasuna guztion kontua eta egin-beharra da.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluko b) letra ordezteko zuzenketa.

Proposatutako testuaren ordezkari honako hau proposatzen da: Gurasoen elkarteetako kideei eta ikastetxeetako gurasoei zuzendutako ikastaro, jardunaldi, hitzaldi eta mintegiak egitea, generoaren arloan hezi daitezen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren baloreak seme-alabei irakatsi diezazkieten. Emakumeen hezkuntza- eta lanbide-mailaren garrantzia bezalako alderdiak sartuko dira.

Zioak: Gurasoek generoaren berdintasunaren arloan duten prestakuntza bermatzea.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.j) artikulua aldatzeko zuzenketa.

NUPari buruzko aipamena kendu behar da.

Zioak: Ez da zehaztu behar non ezarriko diren emakume helduentzako ikasgelak, NUPen edo beste edozein lekutan, UHUNen edo beste ikaste-txe batzuetan, izan baitaiteke.

24. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hezkuntzaren arloko neurrietan c) letra bat gehitu behar da. Hona testua:

“c) Hezkuntza programen barruan, eskola erki-dego osoari zuzendutako etxeko zereginen banaketari buruzko eta haiek egiten ikasteko ikastaro, jardunaldi eta mintegi praktikoak egitea sartuko da.

Zioak: Etxeko zereginak partekatze beharri buruz mutikoak, neskatoak, gurasoak eta irakasleak kontzientziatu daitezten eta haiek egiten ikas dezaten bideratzea.

25. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hezkuntzaren arloko neurrietan d) letra berria behar da. Hona testua:

“d) Hezkuntza programen barruan, eskola erki-dego osoari zuzendutako sexu hezkuntzari buruzko ikastaro, jardunaldi eta mintegiak sartuko dira; halakoetan, sexu aukera guztiak ikuspegi beretik aztertuko dira, aukera heterosexuala “normalagoztat” jotzen duten rola desmitifikatuz.

Zioak: Sexu hezkuntza ez-baztertzaileria sustatzea.

26. ZUZENKETA

BATASUNA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluari idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Nafarroako Gobernuak Hezkidetzako Aholkularitza Berariazkoa ezarriko du pedagogi berrikuntzako atalean eta irakasleentzako laguntza zentroetan (ILZ), Hezkuntza Departamentuaren menpe.

Aholkularitza horren bitartez, hezkuntza maila guztietan eta hezkuntza arlo guztietan, behar

diren ekintzak gauzatuko dira gai honetan, hezkuntza filosofia egokia ezartzeko.”

Zioak: Ezinbestekotzat jotzen dugu aholkularitza hori ezartzea hezkuntzaren arloan planteaturiko ekintzak aurrera eramateko.

6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

27. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.a) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Sakonki aztertzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta sindikatuek sustaturiko azterlan eta xosten ugariak, eta haietan oinarrituz proposamenen eta langabeziaren jarraipena egitea”.

Zioak: Jada aprobetxatu beharko litzatekeen azterlan kopuru izugarria dago.

28. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Helburuak eta neurriak ekonomia, lana eta familia eta lan bizitza bateragarri egiteko ahaleginean” ataleko g) letra aldatzea. Hona aldaketak:

“Sentsibilizazioa...” dioen tokian “eta jazarpena” gehitzea.

Zioak: Jazarpen sexual eta mobbing egoerak zigortzeko neurriak bultzatzea.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.m) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familia bitartekaritzako zerbitzu bat aurreikusita dago jada generoko indarkeriari buruzko legean, eta beste bat sortu beharrean, arrazoizko aurreikuspenak egin behar ditugu, bilatzen den xederako baliagarriak izanen direnak.

30. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.o) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Azterlan hori, bai eta jazarpen egoeretan jarduteko gida ere, eginda daude —zehazki CC.OO sindikatuak egin ditu—.

31. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.p) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Neurri horrekin ados egon bagaitezke ere, ez dakigu zein kostu ekonomiko duen eta, garrantzitsuena dena, eskumen arazoak daude neurri hori bete ahal izateko.

32. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Helburuak eta neurriak ekonomia, lana eta familia eta lan bizitza bateragarri egiteko ahaleginen” atalean q) letra gehitzea, ondoko testuarekin:

“q) Foru Administrazioak emakumeentzat baztergarri gerta daitezkeen itun eta lanbide kategoriak berrikus daitezen bultzatuko du, eta lagun eginen du balio berdineko lanengatik, nomenklatura alde batera utzita, lansari berdina eman dadin.”

Zioak: Batzuetan lanbide kategoria batzuen atzean lansarien arloko bazterkeria dago gutxiago ordaindutako lan jakin bat egin ohi duten emakumeentzat, lan hori gizonek egin ohi duten beste lan baten oso antzekoa delako.

7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**33. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurrien f) letra aldatzea proposatzen dugu.

Letra horren bukaeran ondokoa gehituko da: “Horretarako, besteak beste, Nafarroako ikastetxe (DBH edo/eta goi ikasketak irakasten direnetan) eta unibertsitate guztietan ikasleek preserbatiboak eskuratzeko modua dutela bermatuko da.”

Zioak: Gazteek preserbatiboak eskuratu ahal izatea normaldu eta erraztea.

34. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7.g) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nahasgarria da.

35. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7.i) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados haren testuarekin.

36. ZUZENKETAFORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurrien i) letra aldatzea proposatzen dugu. Ondokoa gehituko zaio:

Hori abian jartzeko, osasun arloko langileek kontzientzia eragozpenerako duten eskubidea arautuko da, betiere ondoko irizpideak kontuan hartuta.

a) Haurdunaldiaren etetean zuzenean esku hartzen duten langileen kontzientzia eragozpena arautzea, hau da, ginekologoek, erizainen eta anestesisten lana, alde batera utzita ekintza medikoan parte-hartze zuzena ez duten langileak, haurdunaldiaren etetean ez dutelako inplikaziorik. Hori dela eta, beharrezkoa da kontzientzia eragozpenetik kanpo uztea laguntzaileak, zeladoreak, garbiketako langileak eta abar, halako moduan non behar diren langileekin erantzuna ematea bermatuko baita kontsultetan, kirofanoetan, guardietan eta abar, hain zuzen ere aurreko puntutik ondorioztatzen denean lan egin dezaten.

Haurdunaldia borondatez etetea

b) Kontzientzia eragozpen horren parametro ezberdinak ezartzea, benetan ezagutzeko haurdunaldia eteteko estadio ezberdinetan fakultatiboak lan egiteko moduan dauden. Esate baterako, egon daitezke ginekologoak haurdunaldiaren eteteak egin nahi ez baina RU-486 pilula emateko arazorik ez dutenak; beste batzuk egon daitezke hama bigarren astera bitarteko eteteak gauzatzeko prest daudenak baina hamaseigarren astean hori egiteko eragozpenak dituztenak; edo beste batzuk prest egon daitezke interbentzioaren ondorengo jarraipena egiteko prest daudenak.

c) Pribatutasuna guztiz bermatzea, ez bakarrik gaixoarena baizik eta baita ere esku hartzen duten osasun langile ez-eragozleena, jazarpen psikologiko eta pertsonaleko aitzinako gertaerak saihestuz. Horretarako, beharrezkoa bada, zehapenen sistema bat ezar daiteke, eskubide hori urratu eta behar ez den informazioa komunikabideei edo inguruko pertsonaei ematen dietenentzat, hain zuzen ere lanbidean jarduteko askatasuna eta intimitatea ez errespetatzeagatik eta era horretako portaerak sustatzeagatik. Azken batean, Osasun Departamentua izanen da arazo horiek ez saihesteak ekar ditzakeen ondorioen erantzule subsidiarioa.

Zioak: Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etetea bermatzea.

37. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei p) letra gehitzea.

p) Nafarroako osasun zerbitzu publikoek sexua aldatzeko ebakuntzen doakotasuna bermatuko dute, hura eskatzen duten pertsonentzat.”

Zioak: Sexua aldatzeko eskubidea bermatzea, doan, beste osasun zerbitzu bat balitz bezala.

38. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei q) letra gehitzea.

q) Orientazio eta laguntza programa bat eginen da depresioak dauzkaten emakume helduentzat, “habia hutsaren sindromea” edo generoari loturiko beste arazoi batzuek sortutako arazoak konpontzeko bideratuak.”

Zioak: Emakume helduen artean maiz gertatzen diren arazoei aurre egitea.

39. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei r) letra gehitzea.

r) Abian jarriko da emakumeek jasandako bor-tzaketa edo tratu txarren kasuei egokitutako osasun laguntzako protokolo bat, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenak jaso bezala”.

Zioak: Aipatu kasuetan osasun laguntza ego-kia bermatzea.

40. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei s) letra gehitzea.

s) “Nafarroako Gobernuak emakumeei laguntzeko zentroetako hezitzaileen lanbide-profilak bir-definituko ditu, hain zuzen ere hezkuntza behar errealetara egokitzeko.”

Zioak: Prebentzio lana langile egokiekin gauzatu ahal izatea.

41. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei t) letra gehitzea.

t) Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin zegoen ituna berrezarriko du, hain zuzen ere irakasleei sexu hezkuntzari buruzko prestakuntza ikastaroak emateko eta ikastaro horien merezimenduak aitortzeko.

Zioak: Prebentzio lana langile egokiekin gauzatu ahal izatea.

42. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei u) letra gehitzea.

u) "Antisorkuntzako metodo guztiak doakoak izatea bermatuko da."

Zioak: Jende guztiak, salbuespenik gabe, haiek eskuratu ahal izan ditzan erraztea.

43. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Osasunaren arloko neurriei v) letra gehitzea.

v) "Nafarroako ospitale publikoek asteburuetan koitoaren ondoko pilulak edukitzea bermatuko da, emakumeentzako laguntza zentroak itxita daudenean. Hartara, pilula horiek eta RU-486 pilula eman ahal izatea eta edukitzea erraztuko zaie hori eskatzen duten ginekologoei."

Zioak: Jende guztiak, salbuespenik gabe, haiek eskuratu ahal izan ditzan erraztea.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

44. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

8. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

"Emakumeek kultura eskura izan dezaten..." hitzen ordean "Emakume guztiak kultura eskura izan dezaten..." hitzak jartzea.

Zioak: Emakume guztiak kultura eskura izan dezaten bermatzea.

45. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

8. artikuluko g) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Jarduketa guztiak barne hartuko dituen behatoki orokor bat sortzea planteatu da; hori dela eta, ez da egoki jotzen hemen jasota geratzea eta soilik gai honi dagokionez.

46. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Kulturaren arloko neurriei h) letra gehitzea.

h) Nafarroako Gobernuak akordio bat sinatuko du Nafarroako komunikabideekin eta publizitate enprekin kode deontologiko bat ezartzeko; kode horren arabera, komunikabideek eta enpresek beren burua arautuko dute eta konpromisoa ere hartuko dute publizitatean emakumeari buruzko bazterkeria-irudirik edo irudi sexistarik ez islatzeko.

Zioak: Publizitatean ikusi ohi da emakumearen kalterako tratu bazterzailea eta sexistaren zatirik handiena.

47. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Kulturaren arloko neurriei i) letra gehitzea.

"Komunikabide publikoek edo finantzaketa publikoa dutenek % 80eko deskontua aplikatuko diote publizitatearen ohiko kanonean emakumeen elkarteek kontrataturiko publizitateari, baldin eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren baloreak eta emakumeen aurkako bazterkeriarik eta bortxakeriarik eza defendatzen baditu. Publizitate mota horren gehieneko bolumena publizitatearen guztizko denboraren % 5 izanen da.

Zioak: Emakumeen elkarteek eginiko sentsibilizazio lana erraztea.

**9. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

48. ZUZENKETA**BATASUNA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Planteatzen diren proposamenak indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenean jasota daude.

49. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago inongo arrazoirik idatz-zati orokorrigo bat sartzeko generoko indarkeriari buruzko lege-testu zehatz eta oso bat jadanik egin denean.

50. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

ANDREAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lerrokada horretan jasotako alderdiak indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenean araututa daude.

51. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

ANDREAK AURKEZTUA

9. artikulua 2. lerrokada ordeztzeko zuzenketa. Hona testua:

“Helburu horiek betetzeko, abian jarriko dira indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Legean jasotako ekintza eta neurriak.”

Zioak: Jarduketa eta neurriak goian aipaturiko foru legean arauturikoetara egokitzea.

**10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

52. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

ANDREAK AURKEZTUA

10. artikuluko g) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ezkontzaz kanpoko seme-alaben aipamen berariazkoari dagokionez, gogorarazi behar dugu gaur den egunean sistema juridikoak ez diela tratatu ezberdina ematen ezkontzaren ondoriozko seme-alabei edo ezkontzaz kanpokoei, eta batzuentzat eta besteentzat berdina dela.

53. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10.k artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da egokia lege-testu batean agertzea; are gutxiago xedapen atalean.

54. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Gizarte bazterkeriaren arloko neurriei n) letra gehitzea.

“Nafarroako Gobernuak behar diren lege-aldaketak eginen ditu oinarrizko errentak, gutxieneko pentsioak —kontributiboak ala ez-kontributiboak izan— eta langabeziarengatik sorospena lanbide arteko gutxieneko soldatari berdintzeko.”

Zioak: Herritar guztiei dirusarrera nahikoak bermatzea, lanbide arteko gutxieneko soldataren adinakoak, emakumeen egoera duintzeko neurri garrantzitsua da, haiek baitira gehienetan dirusarrera nahikoak ez izatea pairatu behar izaten dutenak.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

55. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko VI. ataleko 3. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Iritzi subjektibo bat da —ados egon daiteke edo ez—, baina edozein kasutan ere ez luke lege-testu batean agertu behar, ez baitio ezer ere eransten.

56. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko VIII. atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Biltzar honek generoko indarkeriari buruzko foru lege berariazkoa onetsi ondoren, agian ez du zentzurik berriz ere gai berari ekiteak foru lege proposamen orokorrako eta zehaztasun gutxiagoko batean, jada araututa dauden gauzak izaki.

57. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko I. ataleko 11. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Neurri horiek bazterkeria positiboaz baliatu behar dira Nafarroako gizartea...” dioen lekuan, ondokoa esan behar du:

“Neurri horiek estrategia bikoitz baten barruan daude, Nafarroako gizartea...”

Zioak: Europako Batasunak markaturiko estrategiari gehiago eta hobeki egokitzeko, eta testua, dagoen moduan hartuta, bazterkeria-iturria izatea saihesteko.

58. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko IV. ataleko 2. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“eskola”ren aurretik “familia” gehitu, sozializatorako lehen gunea eta balore-eskola gisa (berdintasuna, errespetua, tolerantzia, bizikidetasuna...). Zalantzarik gabe, baloreen prestakuntzak eskolan jarraitu behar du.

Zioak: Lerrokadaren helburua osatu eta errealitateari egokitzen zaio. Zalantzarik gabe, prestakuntza- eta heziketa-prozesu egoki batek foru lege proposamen honen helburu diren arazo gehien prebentzioa eta konpontzea bermatzen ditu.

F saila:
GALDERAK

Galdera, oporraldietan osasun-arloko langileak ordezteko politikari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak oporraldietan osasun-arloko langileak ordezteko politikari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, 2002ko urtarrilaren 31n, galdera egin du Osasun-bideko osasun arloko langileen oporraldiei eta ordezpenei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bete izan ditu eta beteko ditu aurrerantzean ere zerbitzuen jardunaren ondorioz langileak kontratazko sortzen diren beharrak, zerbitzuen plantillako langileak ez egoteak ekar ditzakeenak barne.

Osasunaren arloko mahai sektorialak, araudi indardunaren arabera zilegitasuna duten eta bai negoziazio kolektiborako bai arlo honetako lan baldintzen zehaztapenerako langileen ordezkari bakarrak diren erakunde sindikalak hartzen dituenak, oinarrizko osasun laguntzan aldi baterako kontratazioak egiteko proposamen baten eztabaida eta negoziazioa ditu irekirik orain.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 28an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Doneztebetik Leitzarako zatia hobetzeko aurreikusitako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du Doneztebetik Leitzara doan errepedeiri

buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zein jarduketa aurreikusi du zure departamentuak tarte horretarako hurrengo ekitaldietan ?

Nafarroako errepedeeri buruzko II. plan zuzendariak aurreikusirik dauka NA-170 errepedeko Leiza-Doneztebe tartearen egokitzapen osoa.

2. Ba al ditu Departamentuak obren exekuzio proiektuak?

Egun programazio fasean daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Irurtzungo Udalak saihebidetako erakitzeko eginiko proposamenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Irurtzungo Udalak saihebidetako erakitzeko eginiko proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Irurtzungo saihebidetari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zer deritza Nafarroako Gobernuak Irurtzungo Udalak saihebidetako erakitzeko eginiko proposamenari?

Udal horri adierazi genion saihebidetako horren trazadurarako proposamena, a priori, onargarria iruditzen zaigula.

2. Ba al du zure departamentuak Irurtzungo erdiguneko trafikoaren neurketari buruzko datu-rik? Eman datu horiek, ibilgailu motei buruzkoak barne.

2001. urtean, Irurtzun zeharkatzen duten errepedetako eguneko batez besteko intentsitateak hauexek izan ziren:

– N-240-A, Iruña-Irurtzun: 2.568 ibilgailu/egunean, horietatik % 1,9 ibilgailu astunena.

– N-7010, Asterain-Irurtzun: 942 ibilgailu/egunean, horietatik % 10,3 ibilgailu astunena.

3. Ba al darabil esku artean zure departamentuak Irurtzongo Udalaren proposamenaz aparte beste konponbiderik? Halakorik badu, esan zein diren.

Ez da beste aukerarik aztertu oraingoan, baina behin betiko diseinua dagokion eraikitze proiektuaren erredakzioak erabakiko du.

4. Zenbat bilera izan ditu zure departamentuak Irurtzongo Udalarekin, planteatu den arazoa konpontzearen?

Hiru bilera egin ditugu, eta beste hartu-eman batzuk ere izan ditugu, idatziz eta telefonoz.

5. Zerk eragotzi dio Nafarroako Gobernuari gaur arte arazoa konpontzearen esku-hartze praktikoa izaten?

Irurtzongo Udalari behin eta berriz adierazi zaion bezala, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hasiera batetik hartu ditu aintzat udalaren proposamenak eta, beraz, galderaren edukia ez da bidezkoa.

6. Zein fasetan da Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendaria?

Erredakzioari azken ukituak ematen ari zaizkio.

7. II. Plan Zuzendari horren behin-behineko testuan, noizko aurreikusten da Irurtzongo saihesbidearen obrari ekitea?

Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariaren obraren behin betiko programazioa ofizialki onetsiko den dokumentuan agertuko direnak izanen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko ekainean egindako bilerak

MAHAIA

26an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 10, 17 eta 24an.

OSOKO BILKURA

6an:

– Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea. Irizpen hori basa fauna eta haren habitak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren gainekoa da.

– Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea. Irizpen hori Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoa da.

– Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea. Irizpen hori Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeari buruzko Foru lege proposamenaren gainekoa da.

– Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 10eko 3/1998 Foru Legeko 16. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztu du.

– Jabeldura, Enplegu Planean sindikatuekin hartutako konpromisoei eusteko xedea duten Nafarroako Gobernuaren ekintza politikoei buruz-

koa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, eskubide osoa daukela bere selekzio nazionalaren bitartez Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan parte hartzeko.

